

Giza eskubideen urraketak jaso dituzte Otxandioko Sufrimenduaren Mapan

Otxandio | Giza eskubideen urraketak jasan dituzten herritarrei errekonozimendua aitortu guran, udalak Otxandioko Sufrimenduaren Mapa egin du. Gerra zibiletik gaur egunera arteko kasuak izen-abizenekin jaso dituzte txostenean. • 7

Estazioko obrak etetea izango da Durangoko gobernu berriaren lehentasunetako bat

Durango | EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdiek gobernu akordioa sinatu dute hainbat herritarren babesagaz. • 4





LENIOR ELORRIAGA

Mimoz jositako zapiak

Memiimo diseinu proiektuaren sortzailea da Yanire Granero abadiñarra. Minbiziaren aurka borroka egiteko prozesuan otu zitzaion ideia, ilea jausi eta zapiaren beharrezina eduki zuenean. Superazioz eta maitasunez josten ditu zapiak. • 2-3

JAIK

ZALDIBAR



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan
- Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Telekomunikazio Instalazioak



MATRIKULA

Uztailaren 11tik 17ra





“Tratamenduan ileordeak eta turbanteak erabiltzen hasi nintzen, baina denak ilunak iruditzen zitzaizkidan”

Superazioz, elkartasunez eta maitasunez jositako Memiimo diseinu proiektuaren sortzailea da Yanire Granero Tena gazte abadiñarra

ABADIÑO • MARKEL ONAINDIA

Minbiziaren aurka borroka egitea tokatu zitzaion, eta prozesu hartatik jaio zen bere egungo proiektu laborala. Ilea jaustearen ondorioz zapiak erabiltzen hasi, eta bere diseinuak garatzeko ideia otu zitzaion. Telak eta hariak mimo bereziz josten hasi zen, kolorez eta baikortasunez beteriko piezak sortzeko. Gainera, etekinen zati bat ikerketarako bideratzea erabaki zuen. Aurrez diseinu gradua ikasia, administrazio eta finantzen zikloa egin zuen, eta Maristak ikastetxeak sustatu duen Urrats Bat ekintzaileen programan arlo sozialeko saria jaso du erkidegoan. Yanire Granero Tena (Abadiño, 1988) da, Memiimo (memiimo.com) proiektuaren sortzailea.


2016an eman zizuten alta, eta orduan ekin zenion Memiimo proiektuari. Minbiziari aurre egiteko tratamendu batetik zentozen.

2016ko urtarrilean hasi nuen tratamendua. Bost bat hilean hartu nuen kimioterapia, eta, ebakuntza egin eta gero, abuztuan radioter-

piagaz hasi nintzen. Notizia ematen dizutenean, medikuaren aurrean, "zergatik gertatu behar zait niri?", galdetzen diozu zeure buruari. Gainera, aita urte eta erdi lehenago hil zen, minbiziak jota. Beraz, etxean aurretik ere bizi izan dugu borroka hori. Urte eta erdi geroago, ez duzu espero zeuri tokatzea. Bularreko minbizia genetikoa zein hormonala izan daiteke, eta nire kasua ez zen ez bata, ez bestea. Beraz, "tokatu egin zaizu", esan zidaten. Ahalik eta arinen hasi gura nuen tratamendugaz; beldur nintzen, baina aurrera aterako nintzen ideia nuen. 2016ko azaroan amaitu nuen tratamendua osoa, eta alta eman zidaten ospitalean. Orduan hasi nintzen lehenengo pausoak ematen. Hasieran ez nuen nire diseinurik egiten; tela erosi eta josi egiten nuen.

Tratamenduan zehar edukitako beharrian batetik sortu zitzaizun ideia.

Ilea jausiko ote zitzaidan galdetu nuen, eta baietz esan zidaten, kimioterapiaren lehenengo saiotik 15 egunera. Ilea aurretik moztea



LEHIOR ELORRIAGA

erabaki nuen, eta aholkatutako leku batera joan nintzen hori egitera. Orduan, ileordeak eta turbanteak erabiltzen hasi nintzen, baina denak nahiko ilunak iruditzen zitzaizkidan, eta ez nituen nire gustuetarako eta adinerako egoki ikusten. Kontua da batzuetan ileordea eramateaz nekatzen zarela, oso ondo eginda egon arren igarri egiten delako ez dela zure ilea. Horregatik, ileordearen gainean turbanteak ipini eta ez zen hainbeste igartzen. Naturalago ikusten nuen neure burua. Orduan, diseinuak egiten hastea bururatu zitzaidan, bai niretzat, bai etorkizunean egoera bera biziko zutenentzat.

Jendearen aurrean dugun irudiak arduratu egiten gaitu gainera...

Bueno, egia esan, nire ondoko jendearen iritziak baino ez dit ardura. Niretzat oso garrantzitsua zen senide eta lagunek ni ondo ikustea; azken batean, lehentxoago ere egoera gogorra bizi izan genuen aitagaz. Batez ere, amarentzat izan zen gogorra, 27 urteko alaba aitak pasatutako gaixotasunagaz ikusten

zuelako. Neure burua ere ondo ikusi gura nuen. Ileaz gainera, nire gorputza puztuta ikusita, batzuetan ez nuen neure burua ispiluaeren aurrean ezagutzen, baina ondo neraman tratamendua, eta horixe zen garrantzitsuena. Baikorra naiz, eta ondo eraman nuen dena.

Zelakoa izan zen proiektuaren hasiera?

Ordura arte, blog batean kontatzen nituen prozesuan emandako pausoak, eta etapa bat zarratzea erabaki nuen. Memiimo lez neure ideiak zabaltzen hasi nintzen. Lehenik, turbanteak kaleratu nituen, eta 2017ko maiatzean merkatu batera joan nintzen lehenengoz, Bilboko Maiatzaren 2 kalekora. Egia esanda, harrituta geratu nintzen, eramandako guztia saldu nuen eta. Hor hasi nintzen neure berezko diseinu batzuk sortzen. Paperean akuarelak margotzen nituen, eta gero ordenagailura pasatzen nituen. Besteengandik desberdintzeko modurik onena nire diseinuak egitea zela ikusi nuen. Gero, mototsetakoak eta bandanak egiten jarraitu nuen. Berrienak aurten landutako diademak dira. Internetekoetatik aparte, hileko lehen zapatuan Bilboko Maiatzaren 2ko merkatuan egoten naiz, eta,

“

Niretzat oso garrantzitsua zen senide eta lagunek ni ondo ikustea"

—

uztailaren 7an, Donostian Kursaal kanpoan egingo den merkatu batean ere egongo naiz.

Urrats Bat saria jasotzean esan ze-nuen kolore askoko piezak sortzen dituzula. Zergatik?

Ez dakidalako beste era batean diseinatzen. Aldatzen saiatu arren horrela irteten zait. Udazken eta negu sasoiatarako, kolore ilunagoak erabiltzen ditut, baina argitasuna izaten amaitzen dute. Uste dut nire markaren ezaugarrietako bat dela. Kolore askoko pieza baikorrak dira. **Zer eskaintzen dizu Memiimo proiektuak?**

Batez ere, gustatzen zaidana egitea, eta horrek bete egiten nau. Hori ezin da ordaindu. Beste lan ba-

“

Kolore askoko pieza baikorrak dira; uste dut nire markaren ezaugarrietako bat dela"

—

tzuetan baino gutxiago irabaziko dut, baina ez dut gehiago behar. Batzuetan, gehiago irabaztea izaten dugu buruan, gauza gehiago erosi ahal izateko. Gauza materialak dira beti.

Eta zer ematen dizu sorkuntzak?

Lasaitasun handia. Batzuek yoga egiteko beharrezana duten moduan, nik honen bitartez lortzen dut lasaitasuna. Oso urduria naiz, eta lanean nabilenean ez dut beste ezertan ere pentsatzen. Burua ho-

“

Minbiziaren aurkako borrokari laguntza emateko helburuagaz jaio zen proiektua"

—

rretan zentratuta izaten dut. Azken batean, ez da marraztea besterik. **Zapiaren beharizanaren kezka beste gaixo batzuekin konpartitu duzu?** Tratamenduan hainbat lagun eza-gutu nituen. Eguneko ospitalean

zortzi ordu ematen nituen kimiote-rapia hartzen, eta, azkenean, ondo-koagaz edozeri buruz berba egiten duzu. Egoera zaila bizi zuten, eta euren jarrera onak asko lagundu zidan. Ezagutu dut ere jendea orientabide eske ibili dena zapia ipintze-ko. Ni ez naiz aditua, baina erakutsi izan dut niretzat zelan izan den baliagarria. Norbera egon behar da eroso. Enpatia sortzen da, ze bestea zelan dagoen jakiteko, ez dago egoera beretik pasatzea lakorik. Sortzen diren loturak politak dira.

Memiimoren ezaugarrietako bat da etekinen %2 minbiziaren aurkako borrokara bideratzen duzula. Superazioz eta elkertasunez beteriko proiektu bat da.

Minbiziaren aurkako borrokari laguntza emateko helburuagaz jaio zen proiektua. Ikerketa ezinbestekoa da, eta nik apur bategaz lagundu ahal badut, bada, egin ahal dudana gauzarik onena da. Gainera, ikusgarritasuna ere eman gura diot. Bakoitzak ahal duen eran lagundu dezake: hezur-muin edo odol emaille izanda, boluntario izanda, lasterketa batera joanda... Inoiz ere ez dakizu nori gertatu

dakiokeen. Hau lakra baten modukoa da, gero eta jende gehiago dago gaixorik. Nork ez du inguruan gaixotasun hau izan duen senide edo lagunik?

Sortutako pieza bakoitzak zure zati bat daramala diozu.

Proiektu hain pertsonala denez... Azken batean, neure barrua zabaldu behar izan dut neure istorioa kontatzeko. Edizio mugatuak ateratzen ditut, eta, batzuetan, azken pieza banatzera noanean, pena

“

Batzuetan, azken pieza banatzera noanean, pena sentitzen dut"

—

sentitzen dut. Maitasun handiagaz diseinatzen dut, hasieratik proiektuari diodan maitasunagaz, eta bezeroari arreta pertsonalizatua eta gertukoa ematen ahalegintzen naiz.



Granero, bere etxean duen tailerrean. Lehió Elorriaga.



Sortzaile abadiñarrak turbanteak, zapiak, bandanak eta diademak ditu salgai. Lehió Elorriaga.

EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdiek herritarrek batera sinatu dute Durangoko udal gobernu berria osatzeko akordioa

Martitzenean ekitaldia egin zuten Kurutzesantu museoan, datozen lau urteetarako gobernu ituna berresteko



Sinadura ekitaldian parte hartu zuten ordezkariak eta herritarrak, amaieran ateratako talde argazkian.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Kurutzesantu museoan eginiko ekitaldian, EH Bildu eta Herriaren Eskubideak datozen lau urteetan udala kudeatzeko ituna izango dena sinatu zuten martitzenean. Gobernu Akordio Herritarra izen-datu dute, eta ekitaldira batu ziren hainbat herritarrek ere sinatu zuten, ituna babesteko.

"Bada udal politika ulertzeko modu bat, irekia, bulegoetatik kanpora kalean egiten dena, hurbila eta pertsonala", azaldu zuen Ima Garrastatxu alkatea. *Durango* bihotzez lemapean, hamabi lehentasuneko programa bat aurkeztu dute. Eta jendeagaz landu gura dute hori. Adibidez, auzoetan indar berezia ipiniko dute. "Eurek ahotsa eta berba izatea gura dugu", esan zuen Herriaren Eskubideko Julian Riosek.

Estazioko obrak etetea

Hamabi lehentasunen artean, badira zeresan handiko batzuk,

datozen asteetan indarra hartuko dutenak. Esaterako, estazioko lurretako obra etengo dute, osoko bilkurak urtarrian onartu bezala. Gero, Erabaki plataformak sustatutako galdeketa egiteko konpromisoa hartu dute, eta emaitza errespetatua izan dadin lan egingo dutela diote.

Bestelako neurriak

Bestelako neurrien artean, hauek nabarmendu daitezke: merkatu plaza eraberritzea, auzotaxia ipintzea, gazteentzat alokairu soziala sustatzea, mugimendu feministak

Garrastatxu: "Bada udal politika ulertzeko modu bat, irekia, bulegoetatik kanpora kalean egiten dena"

gaz batera biolentzia matxistaren aurkako plana lantzea, Eguzkitza-ko eremuan ikerketarako enpresen

sarrera ahalbidetzea, 24 orduko pediatria eskatzea, mediku eta erizainen ratioak hobetzea eta kultur mahaia eratzea.

Erabaki plataformak sustatutako galdeketa egiteko konpromisoa hartu dute

Agenda beteta

Azaldu dutenez, gardentasuna eta parte-hartzea izango dira euren gobernu berriaren ardatzetako batzuk. Hain justu, aste honetan hasi da Ima Garrastatxu herritarrak bulegoan jasotzen. Martitzenero jarraituko du dinamika horregaz –alkateagaz batzartu gura duenak HAZen eskatu behar du–, eta esan du dagoeneko uztaileko agenda beteta duela. Bestalde, zinegotziekin batzeko aukera ere eskainiko dutela aurreratu dute.

12 lehentasunak

- Justizia soziala
- Feminismoa
- Estazioko lurren kontsulta
- Komertzioa eta lana
- Aire
- Auzoak
- Osasuna eta kirola
- Euskara eta kultura
- Hezkuntza
- Espazio publikoen berreskurapena
- Mugikortasuna
- Gardentasuna, gertutasuna eta parte-hartzea

LGTBQ+ Harrotasunaren Eguna deitu du Kili-Kili elkarteak

DURANGO • M.O.

Sexu Askapenaren edo LGBTQ+ Harrotasunaren Eguna da gaurkoa, ekainaren 28a. Hori dela eta, Kili-Kili elkarte jaio berriak egunagaz bat egitera deitu du.

"Aniztasun sexuala ikusgai izatea, defendatzea eta bultzatzea" izan zen helburua

Atzo iluntzerako, kalejira bat iragarrita zuten, eta horren aurretik pregoi bat irakurri zuten. "Durangarren aniztasun sexuala ikusgai izatea, defendatzea eta bultzatzea" izan zen helburua.

Izarra elkarteak zeruko konstelazioak ezagutzeko behaketa antolatu du

DURANGO • M.O.

Izarra astronomia elkarteak zeruko konstelazioak ezagutzeko behaketa antolatu du uztailearen 6rako. Zuhatzola parkean izango da, 22:30ean, betiere eguraldiak laguntzen badu eta zerua garbi badago. Behaketan zodiakoko konstelazioak bereizten ikasteko aukera egongo dela azaldu dute. Adibidez, Lehoiarena (Leo), Birjinarena (Virgo), Balantzarena (Libra), Eskorpioiarena (Scorpius) eta Sagitario arkulariarena (Sagittarius).

Zuhatzola parkean izango da, 22:30ean, betiere eguraldiak laguntzen badu eta zerua garbi badago

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko ekainaren 28a
17. urtea - 769. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

2015 **Bikam**
Bikam 2015
Bikam 2015

PEFC
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Sorginola gaztetxearen laugarren urteurrena ospatuko dute, Fundifest jaialdiagaz

Gaur 'Berbaz' aldizkari literarioaren bigarren edizioaren aurkezpena egingo dute auzoan okupatutako espazioan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Orain lau urteko ekain amaieran Fundifes enpresa zaharreko bulegoak okupatu zituzten, gaztetxe bihurtzeko asmoz, eta horrela jaio zen Sorginola. Atzo, laugarren urteurrena ospatzen hasi ziren eta ekintza ugari antolatu dituzte astebururako, *Dimentsio berri batera* lelopean. Gainera, Tabirako jaiak ere izango dira aldi berean. Izan ere, orain lau urteko okupazio

Ezetaerre, The Guilty Brigade eta Gora Etorri taldeek eskainiko dituzte kontzertuak

egunean ere jaietan murgilduta zegoen Tabira auzoa.

Gaur, esaterako, *Berbaz* aldizkari literarioaren bigarren edizioa aurkeztuko dute, 19:00etan. Herriko gazte eta sortzaileen lanak bilduta osatu dute alea. Sexu Askapenaren

Egunagaz bat eginda, irakurraldia iragarri dute 21:00etarako, Bilgune Feministagaz batera. 22:00etan, gazteek DJ maratoin parte hartuko dute. Tartean, 20:00etan, tortilla jana egongo da Tabirako zelaian.

Bihar marmitakoa

Biharkoa izango da egun handia, bai Sorginolan, bai auzoko jaietan. Tabirako jaiak lotuta, marmitako txapelketa egongo da eguerdian. 20:00etan kontzertu bat eskainiko

dute elizpean, eta gauean gaztetxe barrura pasatuko da egitaraua. Ezetaerre, The Guilty Brigade eta Gora Etorri taldeek kontzertuak eskainiko dituzte, jaiagaz jarraitzeko asmoz.



Sorginolako zenbait kide, asteburuko ekintzak iragartzeko ateratako argazkian.



Mikel Askasibarren kartelak iragarriko ditu Ferixa Nausikoak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aukeratu dute Ferixa Nausikoe-tarako kartela. Mikel Askasibar Bizkarralegorraren *Jaiak pil-pilean* lanak iragarriko ditu abuztuaren 31n hasi eta irailaren 8an amaituko diren jaiak. Kartel lehiaketako antolatzaileek jakitera eman dutenez, Askasibarren lanak herritarren boto asko jaso ditu, eta baita epaimahaikide gehiengoarenak ere.

Aurten, beste urteetan bezala, ANBOTOk emandako 500 euroko saria jasoko du irabazleak.

Donien Atx berria ekarri dute basotik, sikatu eta tratamendua emateko

26 bat metroko haritz amerikarra da, eta hainbat lagunen artean garraiatu zuten frontoiraino

IURRETA • J.G./A.B.

Iurretako sanmigelel hasiera emateko altxatzen duten Donien Atxak 25 urtetik gora ditu dagoeneko. Horren aurrean, erreleboa emango dion Donien Atx berria prestatzen hasi dira iurretarrak.

Joan zen domekan ekarri zuten hurrengo Donien Atxa izango dena, 26 bat metroko luzera duen haritz amerikarra. Hainbat lagunen

artean garraiatu zuten, San Andres auzotik Olaburu frontoiraino, eta,

Orain sikatzen utziko dute haritz amerikarra. Gero, azala kendu eta tratamendua emango diote

bide horretan, Durangoko herrigunea ere zeharkatu behar izan

zuten. Ikusmin handia piztu zuten durangarren artean.

Tratamendua, ez usteltzeko

Iurretarek azaldu dutenez, orain sikatzen utziko dute haritz amerikarra. Ondoren, azala kendu eta tratamendua emango diote, ez usteltzeko. Azaldu dutenez, "baliteke Donien Atx berri hau datorren urtean edo hurrengoan jasotzea".



San Andres auzotik Olaburu frontoiraino garraiatu zuten Donien Atx berria, Durango herrigunea zeharkatuta.

Iurretako XI. Enpresa-proiektuen Lehiaketarako deialdia zabaldu dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Herrigunean enpresa berriak sortzea sustatu gura duen Iurretako XI. Enpresa-proiektuen Lehiaketa ipini dute martxan. Norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei bidea erraztu gura die

Norberaren denda edo enpresa sortuz, lanean hastea erabaki dutenei bidea erraztu gura die

udalak, 6.000 euroko saria lortzeko aukera eskainiz horretarako. Urriaren 31ra arte aurkeztu daitezke proiektuak.

Sustatzaileak herrian errolatuta egotea, proiektuaren originaltasuna eta kalitatea, eta deskribapen maila baloratuko dituzte. Proiektuaren bideragarritasuna, eta gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzea ere hartuko da kontuan. Baita kalitatezko enplegu egonkorra sortzea ere.

Txupinazoa jaurti eta Donien Atxa jasota hasiko dituzte Berrizko jaiak

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaur iluntzean pentsiodunek txupinazoa jaurtita, jai giroak eztanda egingo du Berrizen. Bost egunean, adin eta gustu guztietarako ekintzak egongo dira. Biharkoa, esaterako, egun handia izango da berritzarrentzat, goizetik hasita hainbat ekintza izango dituzte eta. Tartean, urteroko paella txapelketa eta gazteek antolatzen duten mozzorro jaitsiera egongo dira.

Domekan, San Pedro eta Santa Isabel jaien barruan, egun in-

Egitarau zabala izango duen egun internazionalista antolatu dute Berrizen domekarako

ternazionalista ospatuko dute. Palestinako errefuxiatuen saskibaloitzaile babesa emateko asmoz, saskibaloitzaile partiduak, bazkaria eta Ekiñe Casado musikariaren kontzertua antolatu dituzte, besteak beste.

Satxibu aisialdi taldeak udaleku ibiltariak antolatuko ditu lehenengoz

MALLABIA • J.D.
Satxibu aisialdi taldearen udalekuak nobedadeekin datoz aurtten. Lehenengoz, udaleku finkoak ez ezik, ibiltariak antolatuko dituzte. Uztailaren 6tik 10era izango dira eta 12 urtetik 16 urtera arteko 23 gaztek parte hartuko dute. Elgoibarren, Deban, Mutrikun, Zarautzen eta Zumaian ibiliko dira. "12tik 16 urtera arteko gazteentzat udaleku finkoak labur geratzen zirela ikusi eta ibiltariak antolatuta zerbait berria probatzea erabaki dugu", adierazi du Ibon Txurruka Satxibuko kideak.
Udaleku finkoak dagoeneko hasita daude Mallabiko eskoletan, 43 umegaz. Askotariko joko eta tailerrei ikuspegi hezitzailea ematen ahalegintzen dira.

Zazpi proposamen aurkeztu dituzte Izurtzako jaietako kartel lehiaketara

IZURTZA • J.D.
Amaitu da Izurtzako jaietako kartel lehiaketara proposamenak bidaltzeko epea, eta zazpi lan aurkeztu dituztela adierazi dute udaleko iturriek. Sei proposamen izurtzarrenak dira eta zazpigarrena durangar batena da. Udaleko eta udaletik kanpoko hainbat lagunek osatutako batzordeak uztailaren 3an, datorren asteko eguaztenean, erabakiko du aurtengo jaiak iragarriko dituen kartel irabazlea zein den.

Zumalakarregi museoa bisitatzeko irteera antolatu du nagusien elkarteak

GARAI • M.O.
Nagusien elkarteak irteera antolatu du Gipuzkoako Goierrri aldera, uztailaren 9rako, eta deialdi zabala egin du. 09:30ean Garaitik irtenda, lehenik Beasaingo Igartza monumentu multzoa ikustera joango dira. Gero, Mutiloako Mujika jate-txean bazkalduko dute, eta, arratsaldean, Zumalakarregi museoa bisitatuko dute Ormaiztegin. Apuntatzeko azken eguna uztailaren 4a dela esan dute antolatzaileek.

Otxandioko Sufrimenduaren Mapak hamasei herritarrek jasandako tortura kasuak jasotzen ditu

Gerra zibiletik gaur egunera arte giza eskubideen urraketak jasan izandako herritarren kasuak jasotzen ditu txostenak



Txosteneko azken atalak 1978tik gaur egunera arteko datuak jasotzen ditu.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Giza eskubideen urraketak jasan dituzten herritarrei errekonozimendua aitortzeko helburuagaz, Otxandioko Udalak Sufrimenduaren Mapa osatu du. Euskal Memoriaren Fundazioak prestatu du txostena udalarentzat, eta gerra zibiletik hona jatorri politikoa izandako urraketak jasotzen ditu.

Txosteneko sarreran, memoria lantzearen garrantzia azpimarratzen da: "Memoria kolektiboa berreraikitzeak lotura zuzena du errespetuagaz, giza eskubideak zuzen aplikatzeagaz eta justiziagaz".

Baina Sufrimenduaren Maparen helburua haratago doa. "Hemendik aurrera, lan handia dago egiteko, irekitako hainbeste zauri ixteko ahaleginean", jasotzen du dokumentuak. Prozesu horren gidale-rruak "egiaren bilaketa nekaezina" eta biktimen "benetako erreparazioa" izango direla zehazten du.

Horrez gainera, atea zabalik uzten diote oraindik ezagutzen ez diren kasu berriak txostenera gehitzeko aukerari.

Txosteneko datuak hiru epealditan banatuta sailkatu dira: gerra zibila, frankismoa, eta 1978tik gaur egunera artekoa. Zati bakoitzaren hasieran, sasoiko testuinguruaren

azalpen bat egiten da, eta, ondoren, batutako kasu denak zerrendatzen dira, izen-abizenekin.

Lehen bi epealdiak
1936 eta 1937 artean, 15 bider bonbardatu zuten Otxandio, tartean 1936ko uztailaren 22an. Epealdi horretan hildako 55 lagunena datuak dokumentatu dituzte txoste-

Urtebete inguruan Euskal Memoriaren Fundazioak udalarentzat egin duen ikerteta da

nean. Beste zerrenda batek Otxandioko frontean hildako edo desagertutako 512 lagunena zerrenda jasotzen du.

Frankismo sasoiari dagokionez, Gurs kontzentrazio esparruan izandako bost lagunena eta erbestera joan beharra izan zuten sei umeren izenak jaso dituzte, besteak beste.

1978tik gaur egunera arte
Epealdi honetan ahalegin berezia egin dute, orain arte gutxien ikertutakoa zelako. Zerrendetako bat

indar polizialek atxilotutakoena da. 46 lagunena 62 kasu ageri dira. Izan ere, zenbait kasutan, pertsona bera behin baino gehiagotan atxilotu zuten. 46 lagun horietatik 16k torturak jasan zituztela jasotzen du beste zerrenda batek. Kopuru horri beste hiru gehitu behar zaizkio. Hiru horiek ez dira otxandiarrek, baina herrian gertatutako atxiloteten ondoren jakinarazi zituzten torturak.

Beste zerrenda batean, ihes egingakoen kasuak agertzen dira: zazpi izen-abizen ageri dira, 1985etik 1988ra artekoak.

Epealdi bakoitzeko testuingurua azaldu ondoren, jasotako kasuen izen-abizenak zerrendatzen dira

Hildakoen zerrenda izen bik osatzen dute. Luzia Urigoitia da bat; 1987an hil zuten, tiroz, Guardia Zibilak Trintxerpen (Pasaia, Gipuzkoa) eginiko sarekada batean. Bigarren izena Ruben Garaterena da, 2000. urtean preso lagun bat bisitatzetik bueltan zetorrela auto istripuan hil zen otxandiarrena.

TXOSTENeko DATU BATZUK

- 1936-39 (gerra zibila)**
- Bonben eraginez hildako zibilak: **55**
 - Bonben eraginez hildako soldaduak Otxandion: **15**
 - Fusilatuta hildako otxandiarrek: **1**

- 1940-1978 epealdia**
- Gurs-eko kontzentrazio esparruan egondakoak: **5**
 - Beste herrialde batera desterratutako umeak: **6**

- 1978tik gaur egunera arte**
- Hildakoak: **2**
 - Tiroz, Guardia Zibilaren sarekada batean: **1**
 - Dispersioagatik auto istripuan: **1**
 - Atxilotuak: **46**
 - Tortura salaketak: **16**
 - Ihes egingakoak: **7**

Atxondoko Udalak dispertsioaren kontrako murala ezabatu izanak polemika eragin du herritarren artean

Udalak frontoiko hormako murala ezabatu zuen eta hainbat herritarrek berriro margotu zuten eguazten arratsaldean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak Apatamonasterioko frontoiko horman azken 10 urteetan egon den dispertsioaren kontrako murala ezabatu du asteon. "Pintada egin zutenean, ez genuen ezer esan, baina orain horma hori zuriz margotzea erabaki dugu", aitortu dio ANBOTOri Xabier Azkarate alkateak.

Gobernu taldearen erabakiak polemika eragin du Atxondon, eta, hainbat herritarren ekimenez, murala berriro margotu zuten eguaztenean. "Atxondon preso eta iheslarien eskubideen alde lanean jarraituko dugu. Elkarrizketan eta akordioan sinesten dugu, eta, horregatik, murala berreskuratzeko apustua egiten dugu", diote murala berriro margotu duten herritarrek. Bestalde, Atxondoko EAJri eta alkatari bilera formal bat eskatzeko asmoa dutela azaldu du herritar talde honek.

Hainbat neurri

Murala ezabatzearena ez da gobernu talde berriak azken egunotan



Hainbat herritar batu ziren eguaztenean murala berriro margotzeko.

Udalak "egokitu" egingo du Ziarreta auzoaren atzealdean dagoen jolasgunea

hartu duen neurri bakarra. Asteon prentsa ohar bitartez jakitera eman dutenez, guraso talde batek Ziarreta auzoaren atzealdean auzolanean egindako jolasgunea "egokitu" egingo du udalak, "ez dituelako segurtasun neurriak betetzen". "Udalaren betebeharra eta erantzukizuna atxondarren segurtasuna bermatzea eta zaintzea da, eta, beraz, gune berria egokituko dugu, arriskurik barik erabiltzeko", adierazi du Xabier Azkarate alkateak.

Horrez gainera, gurasoek jolasgunea egiteko egindako lana eskertu du Azkaratek.



Garilak 26, The Van eta Mocker's asteburuan Apatan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atzo iluntzean Donien Atxa jasota ekin zioten aurtengo jaiei Apatamonasterion. Lau egunean, jai giroa izango da nagusi herrian.

Gaur, adibidez, patata tortilla eta bakailao txapelketan batu-ko dira atxondarrak. Ondoren, Garilak 26 taldearen erromeria egongo da. Zapatuan, munduko arrozen topaketa eta mus txapelketa egingo dituzte. Gauean, The Van eta Mocker's taldeen kontzertuak eta Deabruen antzerkia egongo dira. Domekan, Munduan berbena ikuskizuna, dantzariak, taloak eta pilota partiduak egongo dira, besteak beste.



Plaza kanpaleku erraldoi bihurtuz ospatu zituzten sanjoanak Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Aurreko urteetan arrakasta izan duen ekimena errepikatu egin du aurten Mañariko Andra Mari guraso elkarteak. Joan zen asteburuan, plaza nagusia kanpaleku erraldoi bihurtu zuten. Kanpin-dendak hartu, plazan ipini eta hantxe pasatu zuten zapatu gaua mañariar askok, herriko gaztetxoek gozamenarako. Goizean jaiki, errekan bainatu, plazan jolasean aritu... Entreenimenduz betirik igaro zuten eguna herriko gaztetxoek. Iluntzean, sardina jana egin zuten, San Joan sua pizteko ordua hurreratzen zen bitartean.

Pertsonak babesteko baranda ipini dute N-634 errepidean, Zaldibar parean

ZALDIBAR • A.M.

2019ko aurrekontuetan aurreikusitako inbertsiorik garrantzitsuenetako bat egin dute Zaldibarren. Hain zuzen ere, baranda bat ipini dute N-634 errepidean, pertsonak babesteko. Hala ere, Jose Luis Maiztegi alkatearen esanetan, oraindino 30 metro baranda gehiago ipini behar da. "Ahalik eta bizkorren ipiniko dugu falta den zatia", esan du. Oinezkoen segurtasuna bermatzea da baranda berriaren funtzioa.

30 metroko baranda zatia ipiniko dute, oinezkoak errepidearen zati osoan babesteko

Bestalde, Eitzaga auzoan, ETSren obrak amaitu eta gero, errepideko azken obrak amaitu berri dituzte. Saihesbidearen eta trenbidearen obrak egin ondoren, auzoa konpontzea agindu zuen Zaldibarko Udalak aurreko legealdian.

Zornotzako EH Bilduk zinegotzi liberatu bat izango du lehenengoz

Udaleko lan kargari aurre egiteko egin dute eskaera; oraindino ez dute erabaki nor liberatuko duten

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Orain arte ez bezala, Zornotzako EH Bilduk zinegotzi liberatu bat izango du legegintzaldi honetan. Legez horrela dagokielako, eurek egindako eskaera bat zela azaldu zuen EH Bilduko Ander Uriartek atzoko plenoan. "Une honetan, udal honen lan bolumena itzela da. Herria handitzen ari da, horrek gestio handia dakar eta jarraipen

zehatza egin gura dugu", adierazi zuen. "Oraindik ez dakigu nor izango den eta noiz eta zelan emango den", gehitu zuen.

EAJ eta PSE-EEren akordioa

Osoko bikuraren ondoren, Andoni Agirrebeitia alkateak jeltzaleen eta sozialisten arteko akordioa berretsi zuen. aurreko legegintzaldian, EAJk eta PSE-EEK gobernu akordio

bat adostu zuten. Orduan, EAJk ez zuen gehiengo osorik. Legegintzaldi honetan, oster, jeltzaleek gehiengo osoa dute, baina, hala ere, akordio "programatiko" bat lotu dute sozialistekin, Agirrebeitia alkatearen esanetan. "Aurreko akordioa onuragarria izan da herritarrentzat eta errepikatzea erabaki dugu", dio. PSE-EEKo Alicia Hernandez Gobernu Batzordeko kidea izango da.



Zornotzako EH Bilduko sei zinegotziak.

“Elikadura sistema aldatzen den heinean, kimikoen erabilera gutxitu daiteke”

Irantzu Duro ingeniariak berbaldia eskaini du, elikadura sistemarekiko jarrera kritikoa edukitzea bultzatzeko helburuagaz



Irantzu Duro Mota
Ingeniari
agroekologikoa
Portugalete | 1978

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Irantzu Durok elikagaietan eta elikadura sisteman gai kimikoez duten eraginaz berba egin zuen hilaren 26an, Abadiñoko Txanporta kultur etxean.

Ekidin al daitezke gai kimikoak elikaduran?

Hitzaldian ikusi zen bezala, gaur egungo elikadura sistemari eusteko, gai kimikoak erabiltzen dira fase guztietan: ekoizpenean, garrarioan, eraldaketa edo kontserbatze prozesuetan edota horiek prestatzeko momentuan. Bide horretako faseetan, zenbait produktu kimiko erabiltzen dira, hainbat helburuagaz. Adibidez, gaur egun denok gaude arduratuta plastikoa erabileragaz, baina ez dago horrelako alarmerik gai kimikoei, ukigarriak ez diren heinean. Erabiltzen diren produktu horiek zertarako erabiltzen diren eta gure gorputzean, batez ere emakumeenetan izan dezaketen eraginari buruzko informazioa eskaintzea da hitzaldiaren helburua. Tailer bat ere egin genuen, produktuen etiketak aztertzen ikasteko. Hitzaldiaren helburua informatzea da, batez ere. Ez dut alarmerik eragiterik gura.

Zer eragin dute gai kimikoez emakumeengan konkretuki?

Erreprodukzioan dute eragina, batez ere. Odolaren edo bestelako substantzien bitartez, hainbat gaiza transmititzen dizkiegu haurrei; horien artean, guk hartzen ditugun kimikoak ere bai. Horregatik da garrantzitsua informatuta egotea. Produktu hauek koipean pilatzen dira. Emakumeon kasuan, nahikoa

koipe pilatzen dugu erreproduzitzeko arrazoiengatik. Titia ematean, esaterako, produktu horiek pilatzen dira. Baina ez da horregatik bakarrik. Funtsean, gure gorputzak ezaugarri horiek ditu. Ezaugarri horiek aipatzen diren arren, nik produktuetan sakontzen dut batez ere, horiek baitira ezagutzen ditudanak.

Elikadura sistema hau mantentzeak zein interes du?

Gaur egun, elikadura ez da elikatzeke ekinga lez ikusten, beste alor ekonomiko bat lez baizik. Orduan, elikadura antolatzeke logikak logika ekonomikoaren arabera daude antolatuta. Hau da, haien artean apartate dauden lekuetan ekoiztu, eraldatu, prestatu eta jaten dira. Janariak distantzia oso handiak egin behar izaten ditu, denbora luzean, eta, jakina, horrelako substantziak erabiltzen dira. Eskulana gutxitzeko ere erabiltzen dira. Industrializaziotik datozen praktikak dira. Funtsean,

“**Durangalean, beste era bateko elikadura eredu bat bultzatzen duten hainbat esperientzia daude**”

industrializazioan erabilitako logikak nekazaritzan aplikatu dira, eta elikadura ez litzateke negozio baten moduan ikusi behar.

Badu irtenbiderik?

Badaude alternatibak. Adibidez, Durangaldean, hainbat esperientzia daude beste elikadura eredu bat bultzatzen dutenak. Gertuko elikadura, sasoiko elikagaiak, zuzenean baserritarrei erositako produktuak... Elikadura sistema eraldatzen den heinean, produktu kimikoen erabilera gutxitu daiteke, kontserbatzeko behar den denbora gutxitzen delako, edo ontziratzeke erabiltzen den plastikoa gutxitzen delako, adibidez.

Bosgarren urtez, martxan da ANBOTOk antolatzen duen udako argazki lehiaketa

Epaimahaiaren saria irabazten dutenek asteburu-pasa banagaz gozatu ahal izango dute

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Bost urte pasatu dira ANBOTOk herritarren argazkilari senari bide eman eta udako argazki lehiaketa antolatzen hasi zenetik. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu ahal izango dira argazkiak udako argazki lehiaketara: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko onena. Gainera, parte-hartzaileek munduko edozein tokitatik ipini ahal izango dituzte argazkiak *anboto.org* webgunera.

Parte-hartzaile bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu

Argazkiak irailaren 15a baino lehen ipini beharko dira ANBOTOk webguneko lehiaketan

gehienez, kategoria bakoitzeko bi, eta aurretik beste lehiaketetan sartu bakoak izan beharko dira. Argaz-

kiok irailaren 15a baino lehen ipini beharko dira ANBOTOk webgunean (*anboto.org*).

Arlo bakoitzean bina sari banatuko dira. Epaimahaiaren saria irabazten duen bakoitzak asteburu-pasa bategaz gozatuko du. Publikoaren sariaren kasuan, eskualdeko onenak Hiper Eroski Abadiñok emandako bozgorailua jasoko du. Eskualdetik kanpoko onenak, ostera, Databost enpresak emandako tableta.



Iaz, Larraitz Arkarazoren argazkiak irabazi zuen Durangaldetik kanpoko lehiaketa.



Hareek denporak!

Makinari kateatuta, AHTaren aurka protesta egiteko

Abiadura Handiko Trena eraikitze lanak 2006ko urte amaieran hasi ziren Urbinan (Ara-
ba), Bilbo, Gasteiz eta Donostia
tren lasterragaz lotzeko asmoz.
Obren hasiera harek zalaparta
eta protesta ugari ekarri zituen
Euskal Herrian, eta baita Duran-
galdean ere. AHTaren aurkako
mugimenduak urteak zerama-
tzen egitasmoa kritikatzeko, eta
obrak hasi aurretik ere hainbat
ekintza egin zituzten. Adibidez,

lurren zundaketak eragozten
ahalegindu ziren. ANBOToren
116. alean argitaratutako notizia
honetako ekintzatik, 15 urte
pasatu dira; 2004ko maiatzean,
Elorrioko Iguria auzoan, herritar
bi zundaketak egiteko makinan
kateatu ziren, 20 bat lagun
babespean.

Ez dago argi noiz ipiniko du-
ten martxan AHTa. Oraindi-
no zati batzuk egiteke daude,
Atxondo herriguneko kasu. **M.O.**

Durangaldea asteen

Bittor Arginzonizen Etxebarri erretegia, munduko hiru jatetxerik onenen artean

Atxondo Bittor Arginzonizen Etxebarri erretegia hirugarren tokian dago munduko jatetxerik onenen zerrendan. Restaurant aldizkariak osatzen du munduko 50 jatetxerik onenen zerrenda, eta Axpekoa hirugarren tokian jarri dute. Horrez gainera, Eneko Atxaren Azurmendi jatetxea hamalagarren postuan ipini dute. Iaz 43. postuan zegoen, eta aurten 29 postu egin ditu gora.



Uztailean Kanpazarren egiten duten San Inazio eguna ez dute ospatuko aurten

Elorrio Elorrioko eta Arrasateko udalek San Inazio eguna ospatu izan dute orain arte, elkarlanean. Udal biek hainbat ahalegin egin dituzte jendea bertaratzeke, baina "arrakasta handirik eduki ez duenez", aurten jaia ez ospatzea erabaki dutela esan dute. Hala ere, Elorrioko txirrindulari elkarteak uztailearen 31rako antolatzen duen bizikleta martxa egin egingo dutela nabarmendu dute.

Iritzia

Abadiñoko Udaleko dagokion arduradunari



Gutun honen bidez, gure udalerrian erabiltzaileen segurtasuna bermatzen ez duten hainbat puntu daudela salatu nahi dugu, baita arreata deitu eta gure kexa adierazi ere.

Gure semeak (7 urte) 14 hilabetez bi "istripu" izan ditu Zelaia eskolan. Bat duela gutxi, eskolako jolastokian apurtuta egon den estolda batek eraginda, eta bestea 2018ko martxoan, eskola atzeko landan berogailuko galdarak dauden tokian.

Azken istripu hau ez da larria izan, hanketan zauri batzuk izan ditu batez ere, eskolan jolasean zebilen bitartean, hanka estolda barruan sartuta. Ez da larria izan, baina oso larria izan zitekeen estoldaren tapa nola zegoen ikusita.

Aurreko istripua larriagoa izan zen. Bigarren mailako erredurak izan baitzituen orkatila inguruan.

Zer gertatu behar da udaleko arduradunek, gure ordaindutako zergekin, herria egoera egokian mantendu dezaten?

Eskolako estoldaren tapa soldatu egin dute, eta momentuz ondo dagoela dirudi. Guk dakigunez, eskolatik 3 aldiz eman dute abisua udaletxean estoldaren taparen egoeraren berri emateko. Umeak dabilen tokian, ez al da nahikoa abisu bakar batekin? Umeak diogu, kasu honetan eskolan izan delako, baina edozein pertsonari gerta dakioko zerbait herriko edozein tokitan.

Gertatutakoa kontuan izango duzelakoan, udaletxe barruan egon beharrean, mese-
dez, noizean behin irten kalera eta paseatu herrian zehar.

Eider Abasolo (Abadiño)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Martxan da Anbotoren Udako 5. argazki lehiaketa

Bidali zure argazkiak ekainaren 28tik irailaren 15era bitartean, www.anboto.org helbidera

Animatu eta parte hartu!


**UDAKO
5. ARGAZKI
LEHIAKETA**

anboto
komunikabideak

JAIK

ZALDIBAR

2019ko UZTAILA



Zaldibarko Udalak
Jai zoriontsuak opa deutsuez
zaldibartar guztioi



Zaldibar
Elizateko
Udala

Zaldibarko jaiak

Ekainak 28, 29 eta 30

XXIX. Areto-futbol maratonia kiroldegian, Zaldua Futbol Taldeak antolatuta.

Ekainak 29, zapatua

16:30 Eskualdeko XII. pilota txapelketa: finalak Olazar pilotalekuan, Zaldua Pilota Taldeak antolatuta.

Ekainak 30, domeka

08:30-14:30 XXVI. argazki rallya.

11:00-12:00 Zumba saio herrikoia adin guztientzat udaletxeko plazan.

16:30 Emakumeen futbol partidua Solobarria futbol zelaian, Zaldua Futbol Taldeak antolatuta.

Uztailak 4, eguena

18:30 Donien Atxa. Ondoren, jaietako kartel lehiaketako sari banaketa.

19:00 Dominika talde feministaren omenezko dantzak; jarraian, Dominika Talde Feministako kideek jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko dute.

19:30 Trikibertsopoteoa **Garikoitz Sarriugarte** eta **Beñat Ugartetxeagaz** txosnagunean hasita.

20:00 Odoloste jana Bekoetxe kalean.

22:30 Rap kontzertua txosnagunean: **Betto Snay** San Frantzisko auzokoa eta **Raperu** santutxuarra.

Uztailak 5, barikua

08:30-09:30 Mendi irteera familiarra udaletxeko plazan hasita.

12:30 Herri kirolak udaletxeko plazan, aizkolariak eta Iparraldeko jokoak.

17:00-20:00 Herri kirolak umeentzat udaletxeko plazan.

18:30 Pilota partiduak Olazar pilotalekuan, Zaldua Pilota Taldeak antolatuta.

18:45 Euskal Presoak Euskal jaietara. Elkarretaratzea txosnagunean.

19:00 “Erre ke erre” elektrotarangagaz poteoa txosnagunean hasita.

19:00 Txokolatada herrikoia guztiontzat udaletxeko plazan, San Martin Nagusien Elkarateak antolatuta.

22:30 Kontzertua, **Radio revolución, Kulto kultibo** eta **Anita Parker** taldeekin txosnagunean.

23:00 Dantzaldia **DJ Josemarigaz** Euskal Herria etorbidean, Helmuga Emakumeen Taldeak antolatuta.

03:00 Kulero, galtzontzillo eta tanga martxa txosnagunean.

Uztailak 6, zapatua

10:00-12:30 Arku-tiroa ume eta nagusientzat Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

12:30-13:00 Zaldibar Arku taldeko arkularien erakustaldia Olazarko galerian, Zaldibar Arku Taldeak antolatuta.

12:00 Gimnastika erritmikoa egiteko aukera denontzat, udaletxeko plazan.

12:00 Tortilla txapelketa eskolako aterpean.

15:00 Gazte bazkaria txosnagunean.

16:00 3X3 saskibalo txapelketa kiroldegian.

17:00 Olinpiadak txosnagunean.

18:00 Apar festa udaletxeko plazan.

19:00 Afari-merienda herrikoia Olea kalean, solomoa (1€) eta sardinak (1€).

19:00 Matraka elektrotarangagaz poteoa txosnagunean hasita.

00:00 Gozo gozo taldeagaz erromeria txosnagunean.

Uztailak 7, domeka

10:30 Bizkaiko txirrindulari eskolen proba, hasiberriak, alebinak eta infantilak. Hasiera Autonomia kalean.

11:00-13:00 eta **16:00-19:00** Umeen jolas parkea eskolako patioan.

12:00 Euskal dantzak Zaldua plazan.

18:00 Bertso saio musikatua Zaldua plazan. **Miren Artetxe, Onintza Enbeita** eta **Etxahun Lekue**.

20:00 Antzerkia udaletxeko plazan, **Malas compañías** taldearen **‘Prozac’** ikuskizuna.

22:00 Jaietako argazkien emanaldia udaletxeko plazan.

22:30 ‘Drakoren semeak’ kalejira piroteknikoa, Olazar kalean hasita.

Uztailak 13, zapatua

07:00 XLII. Zaldibarko mendi martxa Zaldua plazan hasita. Amaiera udaletxeko plazan.

Uztailak 18, eguena

19:00 Argazki rallyaren emanaldia eta sari banaketa liburutegi zaharrean.

Sorgin
TABERNA

Izan aske,
izan sorgin.

KAROBI

Karobi tabernak jai zortontsuak opa dizkizue!

Zalduasolo Plaza, 2
ZALDIBAR
Tel.: 946 826 629

IMENDIA

- Bideo alokairua
- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxa: 946 827 413
Zalduasolo E.7 · **ZALDIBAR**

BARATZA FRUTADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia

PAULAREN ZOKOA
KAFE
EL RINCON DE PAULA

07:00etatik
aurrera zabalik

Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar

Paularen Zokoa

Datorren asteburuan, rap doinuek girotuko dituzte Zaldibarko jaiak

Uztailaren 4rako, Betto Snay eta Raperu bilbotarrak gonbidatu dituzte; Kulto kultibo taldea barikuan arituko da

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Donien Atxa jasota eta Domini-kak txupinazoa jaurtita abiatuko dituzte jaiak Zaldibarren. Uztailaren 4rako ipini dute hitzordua, 18:30ean, plazan. Ondoren, jaietako kartel lehiaketako sariak banatuko dituzte. Lorea Perosanz ermuarra izan da irabazlea, eta bere kartelak iragarriko ditu aurtengo jaiak. Bigarren saria Iker Villanuevarentzat izan da. Bestalde, umeen saria Amance Araukua jaso du.

Iaz martxan jarritako Gazte Egunaren bigarren edizioa antolatuko dute aurten

Dominika txosnagunean

Jaietako nobedadeetako bat txosnagunetik dator. Aurten, Ernaiko eta Gaztetxeko kideekin batera, Dominika talde feministako kideek ere parte hartuko dute txosnagunean. Beraz, eragile bat gehiago izango da txosnetan beharrean.

Kultur aniztasuna bultzatzen duen Zaldibarko Jendeak taldeak

eta txosnaguneak rap kontzertuak antolatu dituzte elkarlanean. Uztailaren 4ko kontzertuan, Bilboko rap talde bik joko dute: San Fratziskoko Betto Snayk eta Santutxuko Raperuk. Uztailaren 5ean, Kulto kultibo rap taldea igoko da taula gainera. Talde irundarragaz batera, Radio Revolución eta Anita Parker arituko dira.

Gazte Eguna

Iaz martxan jarritako Gazte Egunaren bigarren edizioa antolatuko dute aurten. Uztailaren 6an, zapatuan, gazte bazkaria egingo dute txosnagunean, eta arratsaldean olinpiadak egingo dituzte.

Bestalde, herriko hainbat elkarteren ekimenez, kirol ekitaldi ugari antolatu dituzte jaietarako

Herriko hainbat elkarteren ekimenez, kirol ekitaldi ugari antolatu dituzte jaietarako

ko: besteak beste, mendi irteera familiarra, herri kirolak, pilota partiduak, arku-tiro probak eta gimnastika erritmikoa.



NEGUGOGOR TABERNA

Zaldia Elizateko plaza, 8

Tel.: 94 682 70 03

Asano Ostari

Eramateko fanaria

Olea nº 1 Zaldibar

94 604 77 39

Ostargi

Okindegia

Euskal Herria, 20

48250 Zaldibar

94 682 69 50

Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK

ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58

azkonizaga@azkonizaga.com

etarte

www.etarte.com

Barne diseinua

Obra proiektuak

Jarduera legeztatzeak

Erreformak

Altzariak

Barne diseinatzailea:

Garazi Burgoa Zuazo

Euskal Herria z/g. ZALDIBAR

T/F: 946 030 416 - 635 717 360

info@etarte.com

BBVA

ZALDIBAR Aukerak Sortuz

Euskal Herria z/g,

ZALDIBAR

94 682 73 02

www.bbva.es

SIKULAN

Cutting Tool Technologies

WWW.SIKULAN.COM

KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA

C/ Zubiaurre 5 - E-48250 Zaldibar - Bizkaia

Tel. 94 682 74 78 - sikulan@sikulan.com

GAI

Herriko Dominika talde feministak erasorik eta erasotzailerik bako jaien aldeko txupina jaurtiko du

Zaldibarko talde feminista 2018ko abenduaren 14an sortu zen; iaz bezala, brigada feministak antolatu dituzte Zaldibarko jaietarako



Dominika talde feministako kideak, aurkezpenean.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

"Hasi berriak bai, baina ez jaioberririk", esango dute Dominika talde feministako kideek jaietako pregoian. Eurek jaurtiko dute aurreko txupina, eta pozik daude enkarguagaz. "Sekulako ilusioa egiten digu; gure aldarrikapenak jaietan ozen zabaltzeko aukera paregabea dugu orain", esan dute. Ez da Zaldibarko jaiak egiten dieten ekarpen bakarra, izan ere, jaietako brigada feminista ere sortu zuten. Taldea 2018ko abenduaren 14an sortu zen. Hala ere, taldeko kideetarik asko aurretik ere lanean ibilitakoak dira

emakumeen eskubideen alde. Euskarri Herri osoan zehar dabilen olatu feminista hartu, eta herrian ekarpena egiteko helburuagaz jaio zen Dominika. Ordutik hona, jaietako brigada feministak, martxoaren 8ko greba orokorra eta beste hainbat ekimen antolatu dituzte. Eraso matxisten aurkako protokoloa ere osatu dute azkenaldian.

Iazko jaietan, lehenengoz, brigada feministak antolatu zituzten jaietarako, eta ekimenaren balorazio positiboa egin dute Dominika-koek. "Herriko neska talde batzuek eraso matxistak jasan zituzten, eta

brigadara jo zuten. Neurriak hartu eta erasotzaileak kanporatzea lortu zen", azaldu dute. Aurreko mar-txan egongo dira brigadak. Horretarako, formakuntza saioa jaso zuten ekainaren 24an, erasoaren aurrean "aktiboki eta jarrera feministagaz" erantzuten jakiteko. Zaldibarko emakume guztiei brigadetan parte hartzeko deia egin diete.

Dominikaren omenez

Dominika emakume zaldibartarrak 70eko hamarkadan herrian egindako lanaren aitortza legez darama bere izena Zaldibarko talde

feministak. "Zegoen legediari aurre eginez, abortua praktikatzeko zuten. Egundoko lana egin zuten emakumeen eskubideen alde, eta berari

**Ekainaren 24an
formakuntza saioa jaso
zuten, erasoaren aurrean
erantzuten jakiteko**

omenaldi lez aukeratu dugu bere izena", azaldu dute Dominika talde-koek. Ikerketa lanetan murgilduta daude orain taldeko kideak. Dio-

tenez, Dominikak inguruko emakumeei laguntzen zien, orduko "zurumurrak eta begirada txarrei" jaramonik egin barik. Garai hartako emakumeen egoera aldatzea zuten helburu.

Gozatzea, guztien ardura

Dominika taldekoek herriko jaiak guztientzat direla nabarmendu gura izan dute hasieratik: "Hasi-berriak bagara ere, hemen izango gara beti, eraso matxistarik bako jaien alde borrokan, ausartak izateari utzi eta libre izan gura dugulako. Kaleak eta gauak geureak dira!".

1955an sortua
GALLASTEGI
harategiak

ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. ☎ 946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
☎ 946 812 247
www.gallastegiharategiak.eus

CAPELO
Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Zeharkalea, 10 behe
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712

ELECTRICIDAD
EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115
48220 MATIENA - ABADIÑO
eguzki@elect-eguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 f: 946 818 658

MUELLES
ZALDUA S.L.

MALGUEN FABRIKAZIOA
OROKORREAN

Tel.: 946 827 801 · Faxe.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
info@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com



Sanpedroak TABIRAKO JAIAK **DURANGO :: Ekainak 28**

Marmitako lehiaketa eta musika jai giroa berotzeko

Txupinazoa botata, jai giroan murgilduko dira, gaur, Tabira auzoan. Txalapartari eta dantzarien saioa amaitutakoan, tortilla txapelketa eta musika egongo dira. Biharko, jolasak,

bingoa, karta-joko txapelketak eta marmitako lehiaketa antolatutuzte, besteak beste. Gau giroa Luhartzek eta Sorginolako kontzertuek berotuko dute. Dimekan ere egongo da zer gozatu.

Ekainaren 28an

ATXONDO jaiak
‘Pirata garrapata’, 17:00etan, frontoian.
Patata tortilla eta bakailao txapelketak, 20:00etan, frontoian.
Herri afaria 21:00etan.
Garilak 26, 23:00etan.

BERRIZ jaiak
Karro-poteoa, 18:00etan, Olakuetatik.
Pregoia eta txupinazoa, 19:00etan. Gero, sardina jana.
Donien Atxa eta Dantzari Dantza, 20:00etan.
Luhartz, 21:30ean,
Melenas, 23:00etan, Txosnagunean.

DURANGO antzerkia
‘Kale gorrian’ (Cía Barsanti), 19:00etan, Balbino Garitonandian.

DURANGO elkartasun jaia
Nevadah + Parabellum + Puro Chile, 18:30ean, Plateruenean. Sarrerako dirua Aspanova elkartearentzat.

ZALDIBAR bertsoak
Bollo bertso saioa, 18:00etan, plazan. LGTBI Harrotasun Eguna.

Ekainaren 29an

ATXONDO mozorro eguna
Biribil zirku eskola ibiltaria 11:30ean.
Munduko arrozen topaketa, 14:30ean.
Kalejira-poteoa, Matraka elektrotxarangagaz, 19:00etan, plazan.
The Van + Mocker’s, 22:00etan.
Diablos autonomos de Korneya, 23:30ean.

ABADIÑO irteera
Anfibioak ilunabarrean.
Aranzadi Zientzia Elkartea.
94 681 41 55 /urkiola.
parke.naturala@bizkaia.eus.

BERRIZ jaiak
Meza, 12:00etan. Gero,
Dantzari Dantza.
‘Sardina bakalau’ (Anita Maravillas), 12:30ean, udaletxeko lorategian.
Paella lehiaketa, 14:00etan.
Bazkari autogestionatua, 15:00etan, Txosnagunean.
Jaitsiera, 18:00etan. Gero, Zumba! eta mozorro lehiaketako sariak.
Disko-festa 18:30ean.
Igel txapelketa, 19:30ean.
Dantzari Dantza, 20:00etan.
Bolo txapelketa, 20:30ean.
‘Su à feu’ (Deabru Beltzak), 22:30ean.
Oihan Vega, 23:30ean.
ANIER + Dj Tre Maldika eta Dj Fluor, txosnetan.

ELORRIO elkartasun jaia
Tonbola, 10:00etan.
Jolasak, 10:00-14:00.
Kickboxing eta autodefentsa, 11:00etan.
Ropa Vieja, 12:00etan.
Motorren elkarretaratzea 13:00etan.
Pierre Tijuanako mariatxia, 13:15ean.
Paella 14:00etan.
Pottokak, 16:00etan.
Txokolatea, 17:30ean.
Amparito Chou, 18:00etan.
Bideoklip grabazioa 19:00etan. Ordu berean,
Space Octopus.
Sugoi, 20:00etan.

Ekainaren 30ean

ATXONDO jaiak
Igel txapelketa 11:30ean, Itziar tabernan. Plazan,
dantzak, 12:00etan.
‘Munduan berbena’ (Txatxilipurdi) 17:00etan.
Taloak, 18:00etan.
Pilota partiduak, 19:00etan, frontoian.

BERRIZ jaiak
Margo lehiaketa (umeak) 11:00etan, lorategian.
Herri bizikleta martxa, 18:00etan udaletxetik.
‘El apartamento’ antzezlan (Cirk Abouyt It), 19:30ean, eskolan.
Fito&Fitipaldis taldeari gorazarre (Wilson&Wilsonetis) 22:00etan, Elizondon.

Uztailaren 1ean

BERRIZ jaiak
Tribiala, 12:00etan, eta,
Tiragoma txapelketa, 17:00etan, lorategian
Jolas parkea, Berrizburun: 12:30-14:00/16:00-19:00.
3X3 Saskibaloi txapelketa (3-17 urte), 18:00etan, eskolan.
Los Charros mariatxia, 18:00etan, Elizondon.
Nesken X. eta Mutilen XXI. Frontenis Txapelketa, 19:30ean.
Euskal diskofesta, 19:30ean, eskolan,
Apar jaia, 20:30ean.
Berrizko taldeak, 20:30ean, Txosnagunean.
Dj Robert, 22:00etan, Elizondon.

Ekaineko agenda

29

“GOIURIKO AMA, NAGUSIEN ELKARTEA”

13:00 "San Migel" Elizan meza

14:00 Bazkaria Iurretako Pertsona Nagusien Etxean.

17:00 Dantzaldia Nagusien Etxean. Bazkarirako izena ematea:

Noiz: Ekainaren 1etik 25era
Non: Nagusien Etxean
Info+: Nagusien Etxea. Telf: 94 681 81 76

“IBARRETXE KULTUR ETXeko UDAKO ORDUTEGIA”

Ekainaren 24tik irailaren 6ra Ibarretxe Kultur Etxea goizetan egongo da zabalik, 8:30etik 13:30era.

Dokumentalak uda guztian maileguan edukitzeko aukera izango da (berriak izan ezik).

Uztailaren 2an

BERRIZ jaiak
Meza 12:00etan, gero
Dantzari Dantza.
Jubilatuen bazkaria, 14:00etan, Kiroldegian.
Dantza: ‘Meeting Point’ (Ertza), 18:00etan, eta
‘Topa’ (Kukai Dantza & Brodas Bros), 18:30ean, eskolan.
Berrizko Bertso Eskola, 19:15ean, Txosnagunean.
Dantzari Dantza, 20:00etan.
Tortilla lehiaketa, 21:00etan, lorategian.
Su artifizialak, 23:00etan.
ABBA taldeari gorazarre (ABBA Revival), 23:15ean, Elizondon.

Uztailaren 3an

ABADIÑO hitzaldia
Jakoba Errekondo, 19:00etan, Errota kultur etxean. Vive la Huerta. La tierra dice: dame y te daré liburua aurkeztuko du.

DURANGO musika
Jazzeruena: Adi!. 21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

Uztailaren 4an

DURANGO musika
EguenERO: Rojo Cancionero, 20:00etan Intxaurre herriko tabernan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarrri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zine-
ma

:: Durango ZUGAZA

• **Los Japon**
barikua **28:** 19:30/22:00
zapatua **29:** 17:30/20:00/22:30
domeka **30:** 16:30/19:00/21:00
astelehena **1:** 18:30/21:00
martitzena **2:** 20:00
eguztena **3:** 20:00

• **El muñeco diabólico**
barikua **28:** 19:30/22:00
zapatua **29:** 20:30/22:30
domeka **30:** 19:00/21:00
astelehena **1:** 18:30/21:00
martitzena **2:** 20:00
eguztena **3:** 20:00

• **Los días que vendrán**
barikua **28:** 22:00
zapatua **29:** 20:00/22:30
domeka **30:** 19:00/21:00
astelehena **1:** 21:00
martitzena **2:** 20:00
eguztena **3:** 20:00
• **Toy Story 4**
barikua **28:** 19:30
zapatua **29:** 16:30/17:30/18:30
domeka **30:** 16:30/17:00
astelehena **1:** 18:30

:: Zornotza ARETOA

• **La influencia**
barikua **28:** 20:15
zapatua **29:** 19:30/22:00
domeka **30:** 20:00
astelehena **1:** 20:15

“Jendearen gustuko formula bilatzea baino gehiago, gu gustura jardutea da lehentasuna”

Adi! hirukote tolosarrak kontzertua eskainiko du uztailaren 3an, Platerueneko Jazzeruenan



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

2016an sortutako Adi! taldeak rock ukituko jazz doinuak ekarriko ditu Durangora. Egun, Jon Urbizuk, eta Joanes Adarrak eta Antton Telleriak osatzen dute hirukotea. ANBOTOK Telleria elkarriketatu du.

Ezagutzen duzue Jazzeruena zikloa? Plateruena bai, baina ez naiz sekula ere Jazzeruenan egon. Argazkietan

ikusitako baina leku eta giro politak ditu eta itxura ona hartu diot. Musika proposamen ezohikoak egoten dira bertan, eta eszenatokia ere apal samarra da. Hori guztia asko gustatzen zaigu. Gure musika proposamena ez da barruti handietarako. Gehiago da inguru goxo edo intimoetarako, eta, alde horretatik, oso itxura ona du Jazzeruenako kontzertuak.

Ibilbidetxo bat egin duzue hiru urteotan.

Urbizuk eta biok aurretik ezagutzen genuen elkar. Berak Musiken jazz karrera amaitu eta gero, beste erregistro batzuetara jauzi egiteko gogoia zuen. Jazz tradizionalan asko ibili ondoren, aldatzeko gogoia zuen, beste zerbait probatzeko. Haiseran, Mariano Hurtado bato zitzaigun [Inoren Ero Ni, Anari].

Entseatzen eta kantei forma ematen hasi ginen hirukote lez; soinu aldetik ere zigilu bat sortzen hasi ginen, bateriagaz, baxu elektrikoagaz eta saxo baritonoagaz; Urbizuk saxu altua ikasi zuen Musikenen, baina hori ere aldatu gura zuen. Apurka-apurka forma hartzen hasi zen, eta egun ere forma hartzen ari da. Jendea ere proposamen bitxia iruditzen zaio. Euskal Herrian gora doa musika instrumentalarekiko zaletasuna, baina ez da ohikoa. Jendea ahotsaren erreferentzia edukitzera ohituta dago oraindik.

Musikan oinarritzen den giroa da gure kontzertuetakoa, patxadaz entzutekoa. Musikari oso abilak daude taldean, konpas bereziak, eta musikazaleek atsegin dute.

Esan bezala, Mariano Hurtadok grabatu zuen diskoa. Ondoren, baina, Joanes Ederria batu zen taldera.

Mariano oso musikari ona da, baina batera eta bestera ibili beharra du, eta nahiko larri zebilen denbora aldetik. Diskoa grabatu zuen, eta bere zigilua utzi zuen bertan, izan ere, konposatzerakoan bazuen horrelako filosofia rockero bat, gutxiagaz asko egitekoa.

Halako batean, Donostiako Koldo Mitxelena poesia errezitaldi bat egiteko deitu ziguten. Baxu-jotzaile bat behar genuen eta Urbizuk Musikenetik ezagutzen zuen Joanes. Lehenengo entseguan esan zigun gustuko zuela egiten genuena, eta ordutik hona gugaz geratu da. Mutil ona da, musikari ona, eta hirukote lez finkatu gara orain.

Berariak egin duzue musika instrumentalaren aldeko hautua.

Ez diot harrokeriagaz, baina 'gurea hau da eta defendatuko dugu'. Orain horrela da, behintzat. Egonezin musikal antzerakoak ditugun hiru lagun elkartu gara. Egiten duguna jendearen gustukoa izatea gura dugu, baina zerbait probatzeari eman diogu lehentasuna, gu gustura jarduteari, jendeak gustuko duen formula hori bilatzeari baino

gehiago. Jendea gustatzen bazaio, hobe, noski. Kontzertu sorta hau eskaintzen ari garela, publikoaren feedbackaz ahazteko ariketa egin dugu, bestela tentsioa sortu deza-keelako taldearen baitan: 'gustatzen ari zaie?'. Guk gustura jotzen dugu, sinisten dugu egiten dugun horretan, eta gero eta askeago sentitu ahala, ikusleek ere horrela hartzen dute.

2016koagaz alderatuta, zein da Adi!-ren gaur egungo argazkia?

Joanesen eskua igartzetik aparte, abesti sorta berri bat daukagu. Disko berria grabatzeko aukera ere badarabilgu bueltaka buruan. Egia esan, ezin gara askotan elkartu. Kosta egiten zaigu erritmo jarrai batean elkartzea, eta, beraz, jo aurretik ondo entseatzen ahalegintzen gara. Orain oso pozik gaude kontzertu sorta honegaz, eta udazken aldera lokalean lanera sartuko gara. Kontzertuetan galbahe lana egin daiteke, eta abestiak zelan

"Jonek inprobisatzen du gehien, eta ikaragarria da nola jotzen duen"

hobetu ere ikusten dugu. Horixe egiten ari gara. Geratzen dena grabatuko dugu.

Egiten diozue tokirik inprobisazioari zuzenekoetan?

Abesti guztiek egitura bat dute, noski, baina guztiok ditugu bakar-saioetarako une batzuk. Abestietan gure lizentziak hartzen ditugu. Jonek inprobisatzen du gehien, eta ikaragarria da nola jotzen duen. San Joanetan Tolosan jo dugu, eta denek azpimarratzen dute hori. Beste kontzertu batzuetan sentitu dugun magia hori Durangon ere sentitzea gura genuke. Hara joan, jotzen hasi, musikagaz disfrutatu, eta jendeagaz kimika hori sortu dela ikustea.

Kalean da Astolaren hamahirugarren alea, bederatzi ikerketa eta erreportaje berrigaz

Durangaldearen ikuspegi pausatuago bat eskaintzea da Gerediagaren helburua

KULTURA • A.M.

Durangaldeko historian sakontzea helburu duten bederatzi ikerketa lan eta erreportajek osatzen dute

Astola aldizkariaren hamahirugarren alea. Besteak beste, Iurretako kofradiei, Bartolome Ertzillari eta Durangoko arte garaikideari bu-

ruzko lanak bildu ditu Gerediagak urtekariaren ale berrirako. Bost euroan dago salgai, ohiko tokietan.

Martzaatarren leinua

Bestalde, Gerediagak bisita gidatua antolatu du ekainaren 30erako, Atxondon, Martzaatarren leinuaren historia ezagutzeko. 11:30ean izango da bisita. Oinez egingo duten ibilbidean zehar Martzaa auzoari buruzko azalpenak jasoko dituzte, eta, ondoren, San Martin eliza bisitatuko dute. Guztira, ordu eta erdiko bisita izango da, gaztelaniaz.



Astolako lantaldeko kideetako batzuk.

Amatzako 5. Trikitixa Jaialdia uztailaren 6an izango da

Hamahiru lagunek parte hartuko dute lehiaketan; eguna borobiltzeko, bazkaria ere antolatu dute lurretako auzoan

MUSIKA • A.M.

Aurreko urteetan izandako arrakasta errepikatzeko asmoz, aurtengo ere trikitixa jaialdia ospatuko dute Amatzan. Uztailaren 6ko zapatuan izango da. Aurten, arratsaldean barik, eguerdian izango da, 12:00etan. Trikitilari hauek izango dira bertan: Roberto eta Miren Etxebarria; Mirari, Aintzane eta Zaloa; Jokin San Jose eta Zuriñe Gonzalez; Ruben Isasi eta Argibel Euba; Martin eta Olaia; eta Hegoi eta Ainara Petite. Trikitixa

jaialdiak euskal doinuen jarraitzaileen artean interes handia

12:00etan hasiko da Amatzako trikitixa jaialdia, San Martin jaian baita

piztu du azkeneko urteetan, eta Iurretako auzoko jaia urteroko hitzordu bihurtu da askorentzat.

Eskola Agenda 21: aurtengo ikasturtean, elikadura zirkularra bultzatzeko proiektuak garatu dituzte Durangaldeko 14 ikastetxetan

Amankomunazgoak sustatutako ekimenean, ikasleek konpromiso eta proposamen zerrendak eraman dituzte udaletara

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Amankomunazgoak sustatuta, eskualdeko sei udalerritako hamalau ikastetxe aritu dira aurtén Eskola Agenda 21eko programan: Abadiño BHI eta Zelaieta LH, Berriz BHI, Ibaizabal ikastola, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea, San Antonio ikastetxea, Landako LH, Jesuitak, Elorrio BHI, Txintxirri ikastola, Maiztegi eskola, Juan Oroi-

Elikadura zirkularren gaia landu dute, ingurumenari buruz kontzientzia sortzeko

biogoitia BHI eta Zaldibar LH. Elikadura zirkularren gaia landu dute,

ingurumenaren egoerari buruzko kontzientzia sortzeko motibo lez. Ikastetxeetan euren proiektuak garatzetik aparte, ikasleek konpromiso eta proposamenen zerrendak eraman dituzte udaletan eginiko foroetara, eta udal ordezkarien aurrean aurkeztu dituzte. Gero, politikariek udalean eginiko lanaren balorazioa egin dute ikasleen aurrean.

"Benetako lankidetz"
Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentek ekimenaren balorazio positiboa egin du. "Guretzat oso interesgarria da ingurumen gaiak umeekin lantzea. Eskola Agendak benetako lankidetz eta inplikazioa lortzen ditu mankomunitatearen, udalen eta eskolen artean, eta pozik gaude urtero egiten

Aitor Lopez: "Guretzat oso interesgarria da ingurumen gaiak umeekin lantzea"

ditugun lanketekin", adierazi du presidentek.

Ikasleek landatu eta zaindutako letxugak jan dituzte lurretako Maiztegi eskolako jaian

2 urtetik 6. mailara arteko ikasle guztiak pasatu dira aurtén eskolako ortutik

Maiztegi herri eskolan aspaldidanik daukate ortua, eta, batez ere, ikasle nagusiek erabili izan dute. Baina aurtén Eskola Agenda 21eko gaia elikadura zirkularra izanik, gai hori jorratzea erabaki dute, Larraitx Zarrabeitia irakasle eta Eskola Agenda 21eko koordinatzaileak dioenez. "Aurtén, 2 urtetik hasi eta 6. mailara arte denok pasatu gara ortutik. Batzuek letxuga ipini dute, beste batzuek mallukiak,

"Ekintza sinple honegaz, komunitate osoak parte hartu du", azaldu du Zarrabeitiak

patata...". Eskolakoagaz gainera, Iturburuko ortu publikoetan ere badute lursail bat. Ikasleek gurasoen eta aitita-amamen laguntzagaz landatu eta zaindutako 60 bat letxuga jan

zituzten eskolako jaian. "Ekintza sinple honegaz, komunitate osoak parte hartu du", azaldu du Zarrabeitiak. Ekimenagaz Berton Bertokoaren filosofiagaz bat egin dute, gainera. Bestalde, konposta erabiltzen hasi dira, eta jaian soberan geratutakoa bertara bota dute, elikaduraren zirkulua zarratzeko. Gero, ortuan ongarri lez erabili ahalko dute.



Maiztegiko ikasleak, letxugak landatzen ibili zirenean.



Elorrioko Institutuko kideak, ortuan lanean.

Elorrioko Institutuan ortuko lana hautazko ikasgai modura edukiko dute ikasleek

Fenologia deituriko ikasgaia ere edukiko dute, aldaketa klimatikoak arboletan izan dezakeen eragina aztertzeko

Elorrioko Institutuan ibilbide luzea dute ingurumenari buruzko gaietan. Eskola Agenda 21etik aparte, eskola jasangarrien IRAES sarean eta Fridays For Future ekimenean ere parte hartzen dute institutukoek. Miren Bustingorri da IRAESeko arduraduna, eta Xabi Rodriguez Eskola Agenda 21ekoa. Aurrera begira, ildoan sakonduko dute: ortuko lana hautazko ikasgai modura edukiko dute DBHko 2.

mailako ikasleek. Orain arte, normalean Hauspoa orduan –ordutegi jarraia dute, eta arratsaldez bestelako ekintzak eta errepaso klaseak ematen dituzte– ibili izan dira or-

"Ortuan batzen dena sukaldara eramatea izango da helburua", esan du Xabi Rodriguezek

tuan. Horrez gainera, aldaketa klimatikoak arboletan izan dezakeen eraginaz ere ikasgaia izango dute aukeran, Fenologia deiturikoa. "Ortuan batzen dena sukaldara eramatea izango da helburua, zero kilometrogaz eta Berton Bertokoagaz bat eginda", esan du Xabi Rodriguezek. Ortuko konpost ontzietatik aparte, jantokiko organikoa bosgarren kontainerrean batzen hasi dira aurtén. Langileek izandako inplikazioa eskertu du Rodriguezek. "Eurek barik ezinezkoa litzateke", esan du.

Nevadah taldeak etenaldi bat egingo du barikuan Plateruenean eskainiko duen kontzertuaren ondoren

Bost urteko ibilbide oparoaren ondoren, Durangaldeko boskoteak geldialdi mugagabea egingo du Jon Agirre abeslariak taldea utziko duela iragarri eta gero; Aspanovas elkartearen aldeko kontzertuan joko du, gaur, Parabellum eta Puro Chile taldeekin

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Disko bi kaleratu eta hamarka kontzertu sutsu jo eta gero, Nevadah taldeak bost urteko ibilbidea etengo du. Hasieratik abeslaria izan den Jon Agirrek taldea utziko du gaurko kontzertuaren ondoren. Taldekideek ez dakite zer gertatuko den etorkizunean. "Agirrek taldea uzteak aldaketa handia suposatzen du; hutsune handia utziko du pertsonalki zein musikalki. Ez dugu inongo presiorik, eta lasai hartuko ditugu erabakiak", adierazi dute taldekoek. Hala ere, entseatzen jarraituko dutela aurreratu dute: "Musika sortzea gustatzen zaigu".

Agirreraren agurra izateaz gainera, kontzertu berezia izango da barikukoa, izan ere, lehenengoz joko du Nevadah-k Plateruenean. Horrez gainera, sorpresak egongo direla aurreratu dute. "Durangon jo izan dugunetan harrera oso ona izan dugu. Beti alboan izan ditugun jarraitzaileak bertan egongo dira, eta, beraz, giroa

ziurtaturik egongo da", esan dute. Azken hiletan izan ditugun gorabeherak gainditzeko aukera ona ere izango da; bost kontzertu bertan behera utzi behar izan dituzte. "Azken hileak ez dira batere onak izan. Hala ere, orokorrean,

pozik gaude egindako lanagaz", gaineratu dute.

Elkartasunezko festa

Jaiaren testuingurua aparta izango da, Aspanovas elkartearen tzat izango baita lorturiko diru

guztia. Plateruenean egingo den festan Parabellum eta Puro Chile taldeek joko dute Nevadahguz batera. "Batzen den dirua haurren minbiziari aurre egiteko da. Hor-taz, helburua ere polita da," argitu gura izan dute.



Nevadah. Amaia Zaitegi.



Joseba Sarrionandia, Habanan.

Diru bilketa abiatu dute Joseba Sarrionandiaren proiektu berrirako

'Al que fuma, bebe y canta' liburua kaleratu gura du idazle iurretarrak elkarlanean, udazkenerako

LITERATURA • A.M.

Sarrionandiak liburu bat kalera-tuko du udazkenean, Ray Fernandezegaz eta Aristides Hernandez Aresegaz batera. Idazle iurretarrak artista kubatar biek in egin du proiektua, elkarlanean; musikaria da Fernandez, eta ilustratzailea Ares. Ondo bidean, udazkenerako kaleratuko dute liburua. Proiektu-

rako ekarpen ekonomikoak Verkami atarian egin daitezke. Martin kolektiboak sortu du proiektua, eta 5.500 euro biltzea du helburu.

Ray Fernandez, Elorrión

Bestalde, Ray Fernandezek kontzertua eskainiko du uztailearen 14an, Elorrioko Lariz Jauregian, Musika-re jaialdiaren baitan.

Gai librea

Ritxi
Blanco Aguilera
Ikerlaria



Ezbaiaaren laudorioa

Baliteke ziurtasuna gure espeziearen korapilo existentzial nagusia izatea. Ingaruko prozesu orori zentzuzko erantzun bat emateko beharra konstante bat izan da gure historian, antropologikoa eta berezkoa. Egia absolutu eta neutro baten bilaketa amaigabe horrek gidatu gaitu mendeetan zehar, ezagutzaren dorre erraldoia eraikiz.

Aristotelesen zientzia garai-kidearen hazietatik gaur egun arte, naturaren eta unibertsoaren funtzionamendu orokorra azaltzen duen mapa integral bat osatzea izan da jomuga desiratu. Teoria zientifikoen eraikuntza-dekonstrukzio prozesu zikliko horretan, bestalde, faktore komun bat antzeman daiteke: gizakiak errealitatearen kontrola izateko duen beharra.

Horregatik, ezagutzaren esparru guztiak legez estali ditugu: zientzia puruak ez ezik, soziologia edo humanitateak ere araupetu eta orokortu ditugu, edozein prozesu parametrizatu daitekeelakoan. Gizakiak beti erakutsi nahi izan du orojakilela dela, eta hori posiblea ez denez, erlijioaren zenbait forma edo demostraziorik gabeko teoria sofistikatuak erabili ditu (ez al dira erroan gauza bera?).

Hala ere, trikimailu hauek guztiak ezerezari diogun izua besterik ez dute agerian uzten, gure harrokeriak ezin baitu onartu sarritan erantzunik ez duela. Baina gizakia inperfektua da, eta inperfekzio horretan nabigatzen ikasi behar du. Ezagutza eta bizitza ez dira linealak, bidegurutzeak eta espiralak dituzte errepidean. Umiltasuna ezbaia onartzea baino ez da: ez gara ahalguztidunak, eta oinez egiteko ez dugu horren beharrik ere.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HEZURREN ERRETURA
Miren Agur Meabe (2019)

SUDUR GORRI
Valentina Rizzi & Sergio Olivotti (2019)

JOY DIVISION
UNKNOWN PLEASURES (VINYL)
Joy Division (1979)

#gomendioak

CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

Chimeneas

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727



Lizarrako podiumean, Enara Lopez eta Sandra Alonso, etapako lehenengo biak, erdian Cristina Martinez Kopako liderra dutela.

Bizkaia-Durangok sasoi betean aurre egingo die Espainiako txapelketari eta Italiako Giroari

Euskaldun Torneoan eta Espainiako Kopan garaipenak eta kolore bakarreko podiumak pilatzen dabilen taldea hitzordu garrantzitsu biren atarian dago. Asteburuan, Espainiako txapelketa lehiatuko dute, eta, segidan, Italiarantz abiatuko dira, Giroari aurre egiteko

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Uztaila indartsu dator Bizkaia-Durango taldearentzat. Asteburuan, Espainiako txapelketan parte hartuko dute, Murtzian. Pare bat egunean atseden hartu, eta eguaztenean Italiarantz abiatuko dira, uztailaren 5ean hasiko den Italiako Giroan parte hartzeko. Munduko itzulirik prestigiotsuenetik bueltan, Espainiako Kopako azken

lasterketari aurre egingo diote. Cristina Martinez dute lider Kopan.

Sasoi betean

Bizkaia-Durango sasoi betean helduko da hitzordu garrantzitsu horietara. Azken asteetan Euskaldun Torneoan zein Espainiako Kopan lortutako garaipenak horixe erakusten dute. Esaterako, joan zen asteburuan, Lizarran, Espainiako

Kopako lasterketan, Bizkaia-Durango Enara Lopezek irabazi zuen etapa, Sandra Alonso taldekidearen aurretik. Movistar talde indartsuko Paula Patiñok hirugarren tokia-gaz konformatu behar izan zuen. "Lasterketetan zer aurkari dagoen ere begiratu behar da garaipenen balioa neurtzeko, eta Movistarren aurretik geratzea oso emaitza ona da guretzat", adierazi du Agurtzane

Elorriagak, Bizkaia-Durango taldeko zuzendariak.

Aroa Gorostiza taldearen bolada on horren parte izan da. Ekainean garaipen bi lortu ditu elorriar gazteak: 23 urtez azpiko Euskadiko txapelketa eta Bergarako kronoigoera, Euskaldun torneoaren barruan. "Itxaroten genuena baino askoz ere emaitza hobeak lortzen dabil", poztu da Elorriaga.

Giroan, gerra ematera

Munduko talderik onenak batuko dituen itzulian, gerra ematea dute

helburu. Iaz, estrategia ausartak erabilita, sekulako Giroa osatu zuten, eta aurreko beragaz joango dira. "Itxaroten sartzen denak beti du etapa irabazteko lehian ibiltzeko aukera. Jarrera hori izaten ahaleginduko gara", aurreratu du Agurtzane Elorriaga Bizkaia-Durango taldeko zuzendariak.

Ez da erraza izango iazko lana berdintzea, langa oso altu utzi zuten eta. Esaterako, etapa batean hirugarren geratu eta podiumera igo ziren, Alice Maria Arzuffi italiarraren bitartez. Horrez gainera, taldekako sailkapenean lehenengo hiruren artean ibili ziren Giroko zatirik handienean. Azkenean, 24 taldetik 10. amaitu zuten, eurena baino baliabide ekonomiko handiagoko hainbaten aurretik.

Bizkaiko Begiratokia rallya lehiatuko dute bihar eskualdeko bideetan

Parte-hartzaileek 84 kilometro egingo dituzte, lau tartetan eta zortzi erlojupekotan banatuta; zapatu goizeko tarteetako bat Goiurian hasi eta Oizen amaituko da

MOTORRA • JOSEBA DERTEANO
Bizkaiko Begiratokia lasterketa dela-eta, Durangaldeko errepideetan motor hotsa nagusituko da gaur eta bihar. Rallyen Euskadiko txapelketarako puntuagarria da. Gaur autoen egiaztapen probak egiteko eguna da. Horiek egin eta gero, autoak Landako Gunean egongo dira ikusgai, 21:00ak arte.

Zapatuan, 84 kilometroko ibilbideari aurre egingo diote, lau tartetan banatuta. Tarte bakoitza birritan egingo dute. Goiuritik Oizerako igoera 09:30etan eta 12:00etan izango da. Bigarren tarteak, Bizkaiko Begiratokitik Berrojara doana, 10:00etan eta 12:30etan egingo dute. Hirugarren erlojupekoa Maumatik Munitibarrerainokoa da,

16:30etan eta 18:15ean egingo du-tena. Azkenik, laugarren tartean, Ibarruritik Oromiñora etorriko dira parte-hartzaileak: 17:15ean da lehenengo irteera, eta 19:00etan bigarrena.

Eskualdeko hainbat pilotu lehiatuko dira. Besteak beste, Enrike Barrenetxea-Arando, German Agreda eta Eneko Goiriena.

Iurretako Askondoko aterpean pilotaleku mugikorra ipiniko dute, gaur eta bihar

PILOTA • J.D.

Olaburu klubak, udalaren laguntzagaz, denboraldi amaierako jaia ospatuko du gaur eta bihar, Iurretan. Askondoko aterpean pilotaleku mugikorra bat ipiniko dute, eta askotariko ekintzak egingo dituzte bertan.

Gaur, 17:00etan, Olaburu-ko pilotariek pilota partiduak jokatu dituzte eta, ondoren, bertaratzen diren guztiek izango dute pilotalekua probatzeko aukera. Iluntzean, 20:00etan, pintxo-poteoa egingo dute denek elkarregaz.

Bihar, egun osoan zehar, pilota partiduak egongo dira ikusgai, eta pilotaleku mugikorra erabilgarri egongo da gura duten herritarrentzat. Iluntzerako, 20:00etarako, afari-merienda herrikoia prestatu dute pilota klubeko kideek. Ekimen horretarako tiketak tokian bertan eskuratu daitezke. Pilota sustatzeko antolatu duten jaialdiari amaiera emateko, produktuz betetako otzara bat eta kamiseta bat zotz egingo dituzte, 21:30ean.

Elorrio eta Sestao taldeen lagunartekoa, Biak Bat klub berriari laguntzeko



Klub biek kadeteen taldea sortu zuten iaz.

FUTBOLA • J.D.

Elorrio eta Sestao emakumeen futbol taldeek lagunarteko partidua jokatu dute domekan, 16:30ean, Zaldibarko Solobarria zelaian. Sarrera euro bat izango da eta hainbat sari zotz egingo dituzte. Batutako diru guztia Biak Bat klubari emango diote. Klub berri horrek nesken harrobiko futbola indartzea du helburu, eta Elorrioren, Zalduaren eta hainbat gurasoren arteko elkarlanari eskerrak sortu dute. Hiru talde sortu gura dituzte, 2002tik 2009ra bitartean jaioetako gazteekin. Helbide elektronikoko bat sortu dute interesatuentzat: biakbatfutbola@gmail.com.



Aurtengo aldian 65 gidarik parte hartuko dute Bizkaiko Begiratokia lasterketan. **JOSU URIBE**

Europako paraziklismo kopako lasterketa bat hartuko du Elorriok domekan, Saiatu fundazioak antolatuta

Zortzi herrialdetako 91 kirolari batuko ditu lasterketak, eta lau modalitatetan lehiatuko dira parte-hartzaileak



Trizikloena izango da Elorrion ikusiko den probetarikoa bat.

PARAZIKLISMOA • JOSEBA DERTEANO

Elorriok Paracycling Birako proba bat hartuko du domekan. Saiatu Fundazioak antolatuta, Europako kirolaririk onenak batuko ditu. Izan ere, Europako Koparen barruko proba izango da eta baita Tokioko Joko Olinpikoetarako puntugarria ere.

Gaur hasi eta domekara bitartean, Bizkaiko hainbat herritan izango dira lasterketak. Azken egunekoak, domekakoak, Elorrioren egingo dituzte.

Zortzi herrialdetako 91 parte-hartzaile —11 emakumeak— batuko ditu txapelketak. Lau modalitatetan banatuko dira: bizikletan, tandem-ean, handbike-an eta trizikloan. Modalitate bakoitzeko onenak etorriko dira, munduko txapel-dun izandako Foulón frantziarra

eta Garrido venezuelarra, besteak beste. Euskaldunen artean, Alfredo Irueta nabarmendu daiteke.

Elorrio, erdigune

Elorrioko probak goizean izango dira. 10:15ean trizikloen lasterketa hasiko da; 11:00etan, tandem-ekoa eta, 11:20an, bizikletena. Eguerdian sari banaketa egingo dute. Herrigunetik eta inguruetatik diseinatutako zazpi kilometroko ibilbideari aurre egingo diote parte-hartzaileek. “Mundu guztiak Elorrioko proban parte hartu gura izaten du. Ibilbiderik erakargarriena da”, azpimarratu du Txema Alonsok, Saiatu Fundazioko kideak.

2016an ere Paracycling Birako proba bat hartu zuen Elorriok. Orduan, Munduko Koparako puntugarria izan zen.

Jokaldia

Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia



Uda garaiko lanak

Denboraldia amaituta, udako kanpusak, jokalarien teknifikazioak, talde berrien eraketa... dena martxan dago. Udan sartuta gaude eta orain beste dinamika batean sartuta daude Klubak. Ikusten ez den lana da sarritan, baina garrantzitsua denboraldi berriari begira.

Baina, egia esan, hori nahiko urruti geratzen zaigu azkenaldian eskolei, zeren eta gero eta gehiago kostatzen zaigu taldeak gidatu eta landuko dituzten entrenatzaileak bilatzea.

"Eskolen eta ikastolen artean oso harreman ona dute, denak jarraitzen du bere bidetik"

Asteko kirolaria

“Pozarren nago lasterketetan emandako mailagaz eta Espainiako Kopa irabazteaz”

Oier Ariznabarretak hiru garaipen eta laugarren postu bat lortu ditu Espainiako Kopan

Asteburuan Zumaian 42 kilometroko Flysh Trailean garaipena lortuta eta Espainiako Kopa irabazita, Oier Ariznabarreta durangarrak denboraldia borobiltzea lortu du.

Zumaiaiko Flysh Traila nagusitasunez irabazi duzu. Nola joan zen?

Oso urduri heldu nintzen Zumaiaiko lasterketara. Espainiako Koparako puntuagarria zen azken lasterketa zen, eta presio handia nuen, kopa irabaztea jokoan nuen eta. Lehenengotatik nahiko arin irten nuen, lasterketa osoa bakarrik egin nuen eta proba guztian zehar zortzi bat minutuko errenta izan nuen bigarrenagaz.

Bero handia izan zenuten lasterketan zehar, eta proba amaitutakoan zure onera bueltatu ezinda zeundela ikusi zintugun.

Lasterketa hasi aurretik, denok genuen beroaren ardura. Kostaldean egonda, hezetasun handia zegoen eta, gainera, hego-haizea zebilen. Hasieratik bizkor irten nuen, lehenengo 10 kilometroak erraz-erraz egin nituen eta aurkariei alde dezente atera nien. Baina, 20. kilometro aldera, makalalditxo sentitu nuen eta, hortik aurrera, ondo jatea eta edatea, eta errentari eustea zen nire helburua. Oso justuan heldu nintzen helmugara, deshidratatuta. Gainera, lasterketa osoan urduri egoteak ere eragina izan zuen.

Zumaian garaipena lortzeaz gainera, Espainiako Kopako sailkapen nagusia ere irabazi zenuen. Itxarondako emaitza izan da?

Denboraldi hasieran, Espainiako Koparako puntuagarria zen proba bakarra egitea zen nire asmoa, Kanpezukoa. Ordurako, aurkariek hiru probatan parte hartu zuten, baina Kanpezun lan ona egin nuen, hurrengo astean Otañesera joatea erabaki nuen. Proba biak irabazita, puntuagarriak ziren azken bietan parte hartzea erabaki nuen. Egia esan, kopa honetan ez dut emaitza txarrik egiteko aukerarik izan, zazpitik lau lasterketa behar ditugu-eta sailkapen nagusian puntuak lortzeko. Azkenean,



OIER ARIZNABARRETA AGIRRE
Durango, Korrikalaria

lau lasterketatik hiru irabazi ditut, eta bestean laugarren egin nuen. Pozarren nago eman dudan mailagaz eta Espainiako Kopa irabazteaz.

Denboraldiaren nolako balorazioa egiten duzu?

Balorazioa bikaina da. Neguan krosak egiten hasi nintzen, otsailan Sevillako maratonia egin nuen, emaitza ona lortuta. Eta, ondoren, mendiko lasterketetan zentratu naiz. Gainera, emaitza ezin hobeak lortu ditut.

Gero eta arazo handiagoa ari da bihurtzen gure inguruan. Zergatik? Egia esan, arazo hau denon artean landu beharreko gai bat dela uste dut. Gutxienez, Durangoko ikastetxeen artean oso harreman ona dute, eta denak jarraitzen du bere bidetik. Klubak martxan daude eta talde nagusien eta gure artean hainbat bider konpondu ditugu arazoak. Eta horrela jarraituko dugu aurrerantzean ere.

Bestalde, gure eskualdeko taldeak hurrengo denboraldiari begirako eraketan ari dira buru-belarri. Durangoko Tabirako aurtengo denboraldiak utzitako markak hobetu nahian eta epe ertainerako taldeak bideratzen ari da. Zornotza, oster, talde berria eratzen dabil, urtero lez.

Udan gaude, eta bakoitzak bere lanak burutu beharko ditu, datorren urteko denboraldian bide onetik zehar aritzeko. Zorte on talde denei eta uda ona denoi!



GARA

PAPEREZKO
EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAK 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertzea ez dadin!!!

GARARI laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**



Ostalaritza

gida

anboto

Durango



PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunerokoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.

Durango



KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

Iurreta



GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

Durango



URRATS
Juan Antonio Abasolo kalea,3 - DURANGO
Tel.: 946 812 518
Gosariak, bokatak eta pintxoak. Bariku
eta zapatu gauetan hanburbesak. Zapatu
eta domeketan babarrunak enkarguz.

Durango



GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384
Plater konbinatuak, hanburbesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.

Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetak
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Durango



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alai.

Durango



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

Baserria salgai
Elorrión.
Ekonomikoa, berriztua eta leku onean. Lur-sailarekin eta garajearekin.
Finantziatorako erraztasunak.
Tel.: 617 63 67 65

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrión. Atiko polita errentan Elorrión. 50 m2. Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m2-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa.

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Zaldibarren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso

eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Elorrión. Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabilta (Elorrión bertan). Tel.: 688 64 06 04

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauz zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa

baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: Tel.: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK

ANBOTOK banatzailea behar du uztaileko lurretan eta Matienan
ANBOTO astekariak banatzailea behar du uztaileko lehen hiru barikuetan lurretan banaketa egiteko. Beharrezkoa euskaraz jakitea.
Tel.: 94 681 65 58

ETXEKO LANAK

Plantxa orduka egiten dut. Esperientzia handiko emakumea,

orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzeko. Umeak goizetan eskolara eramateko edo zaintzeko prest nago. Egurdietan eta arratsaldetan seietatik aurrera ere ahalko nuke. Urte askotako esperientzia daukat. Irantzuz Tel.: 644 41 11 74

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langilea lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa litzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin:

Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

OSTALARITZA

Amaitermingo
Basaguren jatetxeak zerbitzaria / barrako ardura-duna behar du.
Tel.: 94 681 63 39
Premiazkoa da.
Irenerengatik galdetu.




MIKEL AYESTARAN
ASTE HONETAN
NAHIA QUINCOCES

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



Informazio gehiago:
ttap.eus




Zorion Agurrak


ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

09:00-14:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**



EGUENA 🌡️ 32° / 19° ☀️



“Unibertsitatean lagun berriak egitea eta ondo pasatzea espero dut”

Ibaizabal ikastolako Libe Renteria ikasle zornotzarrak EAEko bosgarren notarik onena atera du selektibitatean

Libe Renteria Aizpurua
(Zornotza, 2001)
• Ibaizabaleko ikaslea

Berba bitan

Zientziak ala letrak
Zientziak

Ikasteko leku bat
Etxean, ikasteko dudak gela bat

Liburu bat
‘El nombre del viento’ (Patrick Nothfuss)

Oporretan joateko leku bat
Iparralde

Hondartza bat
Laga

Ogitarteko bat
Patata tortilla edo begetala

AKUILUA • JONE GUENETXEA

Ibaizabal ikastolako Libe Renteria Aizpurua ikasleak ondo merezitako oporrak hartuko ditu laster. Selektibitatean EAEko bosgarren notarik onena atera du: 9,7. Sasoi berri bat abiatuko du unibertsitatean. Bere hurrengo pausoak bioteknologiaren arlora bideratu gura ditu.

Bosgarren notarik onena lortu duzu. Zelan hartu zenuen albistea?

Sorpresa handia hartu nuen. Oporretan nengoen lagunekin, Malagan, eta mezu bat bidali zidaten berria emateko. Asko poztu ginen denok. Dena dela, horrelako nota jende gehiagok aterako zuela usen nuen.

Asko ikasi behar da selektibitatean nota ona ateratzeko?

Egia esan, selektibitatearako, ez. Ikasturtean zehar ikasitako guztia errepasatu dut. Kurtsoan zehar egin ez duzuna ezin duzu azken egunean egin. Ibaizabalen ikasturte osoko finalak egin genituen, eta, proba horretarako, dena ikasi nuen. Selektibitatea errepaso bat izan zen.

Beraz, ikasturtea bera izan da zailena?

Batxilergoagaz ezin da alderatu ere egin. Presio gehiago dago. Lehenengo egunetik selektibitatea duzu buruan. Azterketa gehiago izan ditugu. Alde horretatik, amaitzeko gogoia izan dugu.

Fase bat amaituta, oraingoa aldaketa sasoia izango da.

Bai, klaseko lagunok elkarrengaz gauden azken urtea izan da. Orain, bakoitzak bere bidea hartuko du.

Zelan dator uda? Zer plan duzu abuzturako?

Orain praktikak egiten ari naiz, Kurutziagan. Praktikak amaitzean, jaietara joan eta ondo pa-

satu gura nuke. Lagunok batera egongo garen azken uda izango da, eta hori aprobetxatu gura dut. Oporretan, familiagaz joango naiz.

Praktikak egiten hasi zara. Zelan doaz?

Monitoritzako kurtsoa egiten ari naiz, urte bian, eta orain praktikak egiten nabil Kurutziaga ikastolako Enjoy English-en. Astelehenean hasi nintzen, lau urteko umetxoekin.

Datorren ikasturtera begira, zer ikasi gura duzu?

Zalantza dut Euskal Herriko Unibertsitatean edo Nafarroako Unibertsitatean joan. Edozelan ere, lagun berriak egitea eta ondo pasatzea espero dut. Denek diote lehenengo urtea dela gogorrena, baina ikusmin handia dut.

Zer ikasi gura duzu?

Nora bideratu gura duzu zeure bizitza profesionala?

Bioteknologia aukeratu dut. Hainbat arlo landu daitezke, medikuntza, nekazaritza..., baina industria edo hondakinen garbiketa da niri gehien interesatzen zaidana.



Lau-hortza

Martin
Loizate Sarriñandia
Ikaslea



Antzekoak edo birritan leitzeko zutabea

Hotsa gero eta handiagoa zen, belarriak izozteko modukoa: dena leitu zuen, lehen orritik azkenera arte. Mingainak ez zebiltzan gustura, beste zerbaiteara zebiltzan. Berak errimatu, esan zidan. Eta nik ulertu: arrimatu. Horregatik luzatu nion be(r)tsoa, eta zinez diot ez nuela ulertu. (B)erotu ginen.

Harakinak arkumeen subsidioaren berri eman zuen, hauek euren buruaz beste egin baino lehen. Ardiek argia ikusi zutela garbi zioen titullarrak.

Irudituei ere erudipen ona begitandu zitzaaien leprak nahastearena, letrosoak pozik egurtu ziren, esker honeko hitzak agurtu zitzaizkielarik, ez dakit nora joateko. Urrutiko berriren batean hartu zutela ospatu zioen herria zabaltzen Gerria egunkarian.

Egunkari berean, (g)astronomiara zuzenduriko atalak konstelazioen izenak zekartzen lehen orrian, eta desagertzeko arriskuan dauden espezieen zerrenda egin zuen gizen bati elkarrizketa bigarrenean: ez omen zitzaizkion espezie denak zoologikoko ontzietan kabituta eta jan egin zituen.

Uda heldu zen, azkenez, eta hondartza nudistetan bero kolpeak biderkatu ziren, “erantsi erropak sartu aurretik” kartelaren eraginez.

Coca-Cola Portugalera heldu zen 20ko hamarkadan, eta Fernando Pessoai -beste berbagile bat publizitate lanetan- egokitu zitzaion honen kanpaina pentsatzearen ardura. Lema bat ondu zuen, Coca-Cola osatzen duten hizkien antzekotasuna (paronimia) imitatu: “Primeiro estranha-se, depois estranha-se” edo “lehenengo kezkatu, gero freskatu”. Eta hain omen zen ona leloa, eta hainbeste bul-tzatzen ei zuen edatera, eta hain konbentziturak zeuden kokaina zeramala, ez baitzuten Krabelinen Iraultza hiru urtera arte baimendu.

maristak
Ikastetxea - Durango
etorkizun oso bat
946810058
www.maristak.com
www.maristak.com



Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



BATXILERGO BERRIAK
1. mailako Filosofia
Ingeles/Euskaraz/Gaztelaz
Batxilergo DUALA
(amerikarra)

MATRIKULAK
Batxilergoa
Ekainak 21tik Uztailak 5ra
Zikloak
Uztailak 11tik 17ra

Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!